

Sakanako euskara. Burundako hizkera

Koldo Zuazo

Liburuaren ezaugarriak

Argitaratzaileak: Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia, Iruñea: 2010.

Bilduma: Mendaur, VIII. alea.

Orriak: 227.

Mapak: 15.

1. Burundako hizkeraren nortasuna

Euskal Herri osoan ibili eta gero, Burundako hizkera da ezagutu dudan bereziena. Jakina, haren kokagunea da horren arrazoia: Nafarroako bazter batean dago, Gipuzkoa eta Araba ondoan dituela. Hiru leku horietatik elikatu da Burundako euskara.

Dena dela, beste gauza berezi bi ere badira. Alde batetik, gauza zahar asko gorde dira eta hori harrigarria da. Beti espero da bazterretan eta leku urrunetan aurkitzea gauza zaharrak. Burunda, ordea, oso komunikabide inportanteen ondoan dago. Handik igarotzen da Iruñea eta Gasteiz lotzen duen bidea eta Burunda zeharkatzen dute, era berean, Nafarroa eta Araba Gipuzkoarekin lotzen dituzten komunikabideek. Aipatzen ditudan gauza zahar horien adibidea da, esate baterako, bustidurarik ez egitea: *il*, *in* eta *it* bere horretan esaten dira, *ill*, *iñ* eta *itt* egin gabe: *mutila*, *lainua*, *iturria* esaten dira; ez *mutilla*, *laiñoa* eta *itturria*. Gainera, gaztelaniatik hartutako hitzetan ere saihestu egiten dira *ll* eta *ñ* horiek. Esatea baterako, *silla* > *silia*, *pastilla* > *pastilia*, *daño* > *dainua*, *caño* > *kainua* bilakatu dira.

Beste hau da harrigarria den bigarren gertakaria: Burundako eta Sakanako gainerako hizkeren artean dagoen aldea. Bakaiku da Burundako

azken herria eta Etxarri Aranatz harekin muga egiten duena eta batetik bestera nabarmen aldatzen da hizkera. Esate baterako, Sakanan *zait*, *zaio*, *zaigu* gisako adizkien ordez, *dakit*, *dakiyo*, *dakigu* bereziak esaten dira. Adizki horiek Sakanan sortutakoak dira, baina ez dira Burundara zabaldu. Etxarri Aranatzen *ahaztu dakit* esaten dena, Burundan *ahaztu zaira* esaten da.

2. Burundako hizkera aztertzeak ekarri dituen ondorioak

Burundako hizkera ezagutzeak eta aztertzeak erabateko eragina izan du nire ibilbidean. Orain dela hemezortzi urte inguru ezagutu nuen hizkera hori. Bonaparteren esanetan, euskalki giputza egiten zen Burundan, Etxarri Aranatzen eta Ergoienan eta, hizkera horiek bertatik bertara ezagutu nituenean, hori ez zela zuzena konturatu nintzen. Orduan hasi nintzen, hain zuzen, euskara bere osotasunean aztertzen eta Euskal Herria batetik bestera ibiltzen.

Beste gertakari batez ere jabetu nintzen. Bonapartek lerro bakarrarekin bereizten zituen hizkuntzaren mugak eta hori ere ez zen zuzena: Burundako hizkera “tartekoa” zen, euskara nafarra, mendebalekoa eta erdialdekoa batzen ziren bertan.

Azkenaldian Burundan egoteak beste gertakari batez jabetzeko balio izan dit. Mendebaleko gauza asko esaten dira Burundan. Orain arte mendebaleko ezaugarri horiek Bizkaian sortutakoak zirela uste zen, baina Burundatik begiratuta, zaila da hori onartzea. Gainera, Burundan ez ezik, Ameskoan eta Lanan ere baziren mendebaleko ezaugarri horiek. Orduan etorri zitzaidan burura Gasteiz izan zitekeela mendebaleko euskalkiaren sorgunea. Gasteiz izan zen mendebaleko hirigune nagusia antzina eta han sortutako gauzak erraz hel zitezkeen Nafarroako mendebalera eta baita Gipuzkoako Deba ibarrera, Goierrira eta Urolaldera ere.

3. Liburuaren osagaiak

Zati nagusi bi ditu liburuak. Lehenengoan Burundako euskara erakusten da. Ohiko sailak egin dira: fonologia, morfologia eta sintaxia. Alde batera utzi da lexikoa, aparte aztertzeko. Oso aurreratuta dago, hain zuzen, Burundako lexikoa jasoko duen hiztegia. Aldiz, hitanoari leku berezia egin diot. Osasun txarra dauka eta, badaezpada ere, ganoraz jasotzea erabaki dut.

Liburuaren bigarren zatia dialektologiari lotutakoa da. Burundan zer sortu den eta kanpotik zer hartu den aztertu dut eta, hartu den hori, nondik etorri den zehazten ahalegindu naiz. Horrekin batera, Burunda barruan dauden aldeak aipatu ditut eta Burundatik Sakanako gainerako alderdietara zer aldatzen den eta zer den berdina erakutsi dut.